

«Montanera del Sur» markako produktuetan hautemandako listeriagatiko osasun-alerta berria

Azken orduko berria

2019ko Irailak 12

Elikagaien Segurtasuneko eta Nutrizioko Espainiako Agentziak (AESAN) *Listeria monocytogenes* eragindako beste alerta baten berri eman zuen.

AESANek gomendatzen die euren etxeetan **INCARYBE SL** enpresak (RGSEAA zenbakia: 10.004805/M) egindako produktuak dituzten pertsoneri ez ditzatela kontsumitu eta saltokira itzul ditzatela.



Andaluziako Juntako osasun-agintariek *Listeria monocytogenes* eragindako beste alerta baten berri eman zuen, "**La Montanera Del Sur**" markako produktuetan. Produktu horiek Benaojánen (Malaga) helbideratuta dagoen INCARYBE SL enpresak (RGSEAA zenbakia: 10.004805/M) egiten ditu.

Arreta-neurri gisa agindu du enpresako instalazio horietan egindako produktu guztiak merkatutik ateratzeko.

AESANen jakinarazpena 12/09/19
(http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/web/noticias_y_actualizaciones/noticias/2019/Alerta_montanera.htm)

Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago kaltetutako produktuak merkaturatu izanaren berririk, ezta kaltetutako pertsonaren berririk.

- ! Listeriosia EZ da pertsonatik pertsonara kutsatzen. Kontaminatutako elikagaiak janda kutsatzen da batez ere eta amarengandik seme-alabei karenaren bidez edota erditzerakoan.

Arrisku handiko taldeak



Paziente immunodeprimituak



Adinekoak



Bularreko haurrak eta haur txikiak



haurdun dauden emakumeak

Gomendio orokorrak

- **Ondo etiketatutako produktuak bakarrik erosi.** Haragi-produktuen etiketek marka obal bat izan behar dute, zeinetan produktua merkaturatzeaz arduratu den establezimenduaren osasun-erregistroaren zenbakia (RGSEAA) agertzen baita.
- Etxean **“La Mechá”, “Sabores de Paterna” edo “Montanera del Sur” markako produkturen bat dutenek, ez dute kontsumitu behar**, eta dagoeneko kontsumitu badute eta sintomaren bat badute, osasun-zentro batera jo behar dute.
- **Haurdun dauden emakumeek erreferentziazko informazio ofiziala** kontsultatu behar dute, edo osasun-arloko profesionali galdetu.
- **Etxeetan, garrantzitsua da kutsadura gurutzatua saihestea.** Horretarako, beste elikagai batzuk uki ditzaketen gainazalak eta tresnak ondo garbitu eta erabili behar dira.

Informazio gehiago

ELIKAREN elikagaien segurtasunari buruzko atalean, agente kimiko eta biologikoei loturiko arriskuen fitxa teknikoak (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/arriskuen-fitxak/>) aurki daitezke. Fitxa horien artean dago, besteak beste, Listeriari buruzkoa:

Listeria buruzko fitxa teknikoa - ELIKA (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/listeria/>)

Horrez gain, infogramak (<https://www.elika.eus/eu/arriskuen-infogramak/>) eta fitxa teknikoen laburpenak ere ikus daitezke; besteak beste, Listeriarena:

Listeria infograma- ELIKA (https://www.elika.eus/wp-content/uploads/sites/10/2018/01/Listeria_eu_opt.pdf)

Agerraldiari buruzko erreferentziak

Berriak eta eguneratzeak- AESAN

(http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/web/noticias_y_actualizaciones/noticias/listados/aecosan_listado_noticias_2019.htm)

Osasun Sailaren nota - Eusko Jaurlaritza (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/andaluziako-listeriosi-agerraldia/ab84-oskcon/eu/>)

Informazioaren eguneraketa, Euskadiko osasun arloko profesionalentzat - Eusko Jaurlaritza

(<https://www.osakidetza.euskadi.eus/albistea/2019/listeriosis-informazioaren-eguneraketa-euskadiko-osasun-arloko-profesionalentzat/ab84-procon/eu/>)

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 . berri@elika.eus
(<mailto:berri@elika.eus>)